

aalborgplus10

Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila
49.zk. 2005ko Apirila

ingurumena.net

Zure esku dago

AALBORGeko KONPROMISOAK

Euskal udalerriek Europako
iraunkortasunari egindako ekarpena



aalborgplus10

Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

Ingurumeneko Esparru Programa Saila bildumako tituluak www.ingurumena.net helbide elektronikoan ikus ditzakezu

- **29.zk. 2004ko otsaila.** “2002ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Gasen Emisioen Inbentarioa”
- **30.zk. 2004ko martxoa.** “2004ko Ekobarometro Soziala”
- **31.zk. 2004ko martxoa.** “Euskadi nire autorik gabe. 2003. Euskal Udallerrietako Mugikortasun Iraunkorrerantz”
- **32.zk. 2004ko ekaina.** “TOKIKO AGENDA 21. Ekintza-planak martxan jartzeko gida”
- **33.zk. 2004ko ekaina.** “TOKIKO AGENDA 21. Parte-hartzeko mekanismoak martxan jartzeko gida”
- **34.zk. 2004ko ekaina.** “Ore eta paperaren sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari. 2004-2006”
- **35.zk. 2004ko uztaila.** “Hondakin arrisksutsuen kudeatzaileen sektoreko enpresen ingurumen-ekarpena garapen iraunkorrari”
- **36.zk. 2004ko iraila.** “Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun iraunkorraren udal-planak egiteko gida praktikoa”
- **37.zk. 2004ko iraila.** “Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumen-ekarpena (2204-2006)”
- **38.zk. 2004ko urria.** “Tokiko Agenda 21. Aurrera egiteko komunikatzea. Prozesuan komunikatzeko estrategien eskuliburua”
- **39.zk. 2004ko otsaila.** “Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak”
- **40.zk. 2004ko otsaila.** “Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko Ingurumen Adierazleak”
- **41.zk. 2004ko azaroa.** “2003ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentario”
- **42.zk. 2004ko abendua.** “Euskal Autonomia Erkidegoan Plan eta Programen Ingurumen-inpaktuaren Ebaluazio Bateratua Aplikatzeko Gida”
- **43.zk. 2005ko urtarrila.** “Euskal Autonomia Erkidegoko Aztarna Ekologikoa”
- **44.zk. 2005ko apirila.** “Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren kanpo-kostuak. MUGIKOST’05”
- **45.zk. 2005ko ekaina.** “Youth x Change. Kontsumo iraunkorra: heziketa-eskuliburua”
- **46.zk. 2005ko apirila.** “Beira-, Zeramika- eta Kare-sektoreko enpresek Garapen iraunkorrari egiten dioten ingurumen-ekarpena”
- **47.zk. 2005ko Maiatza.** “Laburpena: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Egoera 2004”
- **48.zk. 2005ko apirila.** “Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruan eta biomasan dagoen karbono organikoaren inbentarioa”
- **49.zk. 2005ko apirila.** “Aalborgeko konpromisoak. Euskal udallerriek Europako iraunkortasunari egindako ekarpena”

www.ingurumena.net/udala

Tokiko Iraunkortasuna lortzeko bidean Euskal Autonomia Erkidegoan

www.ingurumena.net

Gure Herriko Garapen Iraunkorraren inguruko Eusko Jaurlaritzaren orria

© IHOBE 2005

Argitaratzailea: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa – IHOBE

Diseinua eta gauzatze grafikoa: Dual^{XX} - Comunicación & Diseño

Itzulpena: Elhuyar

Lege Gordailua: BI-xxx-05

Paper birziklatuan eta klororik gabe zurituan inprimatua

ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitartekoa edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.



AALBORGeko KONPROMISOAK

**Euskal udalerriek Europako
iraunkortasunari egindako ekarpena**

aalborgp1us10
olsn1d1oq1e



2004ko ekainean, **Aalborg + 10** *Europako Herri eta Hiri Iraunkorren Laugarren Konferentzia* egin zen. Han Europako tokiko 1.000 ordezkari bano gehiagok egunetan eztabaidatu zuten, planetaren iraunkortasunerako toki-mailan egin daitekeenari buruz. Konferentzian era aktiboan parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko, Foru Aldundietako eta, **Udalsarea 21en** izenean *–Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea–*, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri askotako ordezkariak.

1994an Danimarkako Aalborg herrian Europako Herri eta Hiri Iraunkorren I. Konferentzia egin eta *“Aalborgeko Gutuna”* onartu zenetik, dagoeneko hamar urte igaro dira, eta, aldi horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerrri inplikatu da pixkanaka iraunkortasunerako tokiko politikak –garapen iraunkorraren alde egingo dutenak– sustatzeko.

Argitalpen honetan aurkezten ditugun Aalborg + 10eko konpromisoak apustu berri bat dira, hiritar guztion bizi-kalitate hobea erdiesteko Europako hainbat herri eta hirik egindako apustua hain zuten. Konferentziaren baitan, euskal udalerriek konpromisoak sinatu zituzten, gainerako herri eta hiriei beren esperientziak azaldu zizkieten eta beste herrialde eta hirietako sareekin bizipen-trukea egin zuten. Konferentzian Europako udalerrri-ordezkari askok hartu zuten parte, eta horrek argi eta garbi adierazten du iraunkortasunerako herri eta hirien mugimendua, une honetan, garapen iraunkorra lortzeko ekimen eraginkorra eta konprometitua dela.

Argitalpen honekin, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak sustatu nahi duena da euskal udalerriek Aalborgeko IV. konferentzian erabakitako konpromisoak onartzea. Ezin dugu ahaztu munduko garapen iraunkorra lortzeko bidean aurrera egin nahi bada, tokian politika eraginkorragoak ezarri beharko ditugula. *“Aalborgeko konpromisoak”* funtsezko erreferente dira, gainerako Europako herri eta hiriekin batera, gure herri eta hiriak bizikidetzarako gune atseginagoak eta iraunkortasuna aintzat gehiago hartuko dutenak egin ditzagun.



Sabin Intxaurre

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen Sailburua

| | |
|--|----|
| 1. <u>Sarrera eta Aurrekariak</u> | 5 |
| 2. <u>Europako Herri eta Hiri Iraunkorren IV. Konferentzia: Aalborg + 10</u> | 7 |
| 3. <u>Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020</u> | 9 |
| 4. <u>Aalborgeko Konpromisoak nola hartu?</u> | 11 |
| 5. <u>Aalborg + 10 – Etorkizunerako Inspirazioa. Aalborgeko Konpromisoak (testu osoa)</u> | 13 |
| Eranskina: <u>Aalborgeko Gutuna – Europako Herri eta Hiri Iraunkorren Gutuna (testu osoa)</u> | 17 |



+X 1. Sarrera eta Aurrekariak

Iraunkortasunaren aldeko Europako Hirien Gutuna, **Aalborgeko Gutuna** izenaz ezagunagoa dena, Europako tokiko 80 agintarik sinatu zuten, 1994ko maiatzaren 24 eta 27 bitartean egin zen **Europako Herri eta Hiri Iraunkorren I. Konferentziaren** amaieran. Gaur egun, dagoeneko, 1.400 tokiko erakunde baino gehiago atxiki zaizkio gutunari.

Gutun hura Europako Herri eta Hiri Iraunkorren Kanpainaren hasiera izan zen. Kanpainaren helburua zen tokiko politikak taxutzerakoan eta betearazterakoan ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-helburuak bateratzea, iraunkortasunaren alde lan egiten duten udalerrriak laguntzeko eta sustatzeko.

Aalborgeko gutunak hasiera-hasieratik aipatzen du bereziki hiriko eta tokiko erakundeek zenbateko garrantzia duten garapen iraunkorraren alde egiterakoan, kontuan izan behar baita tokiko gobernuak hiritarrendantik gertuen dauden erakundeak direla eta, beraz, ingurumen-desorekei aurre egiteko erakunderik egokienak.

Nazioarteko dokumentu askotan dago jasota garapen iraunkorraren alde egiterakoan tokiko erakundeen lana ezinbestekoa dela.

■ **Ingurumenaren alorreko Europako Seigarren Ekintza Programa**, 2002ko uztailaren 22an onartu zuten Europako Parlamentuak eta Europako Batasuneko Kontseiluak. Programaren artikuluetan aipatzen da hiritarrak eta tokiko agintariak kontzientziatzeko ekimenak garatzeko premia, Europako Erkidegoko ingurumen-politika modu bateratuan egin ahal izateko

Zehazki, ingurumenari, osasunari eta bizi-kalitateari dagozkien helburuak eta lehentasunezko jarduera-esparruak jasota dauden atalean, hiri-ingurumenerako lehentasunezko neurriak ezarri dira:

[...] Erkidegoko politika modu bateratu eta horizontalean bideratu eta hiri-ingurumenaren kalitatea hobetuko duen gai-estrategia diseinatu eta martxan jarri – egungo lankidetzaz-esparrua aplikatzerakoan egingo dako aurrerapausoak kontuan hartuko dituen, beharra dagoenean berrikustea eskatuko duena eta “Tokiko Programa 21en” sustapenari buruz jardungo dena. [...]



■ **Europako Batasuneko Garapen**

Iraunkorrerako Estrategiak jasota ditu garapen iraunkorraren alde egiteak berarekin dituen erronka eta aukerak. 2001eko ekainean Göteborgeko Gailurrean onartu zen estrategiak hau azpimarratzen du:

[...] Nahiz eta tokiko erakunde publikoak funtsezkoak izan esparru zehatza eta epe luzekoa ezartzeko, azken batean, hiritarrei eta enpresei dagokie garapen iraunkorrerako beharrezko jarrera- eta teknologia--aldaketak egitea. [...]

Maila globalean garapen iraunkorra lortzeko bidean aurrera egin nahi bada, ezinbestekoa da tokian jardutea. Kontuan harturik arazoak konpontzerakoan tokiko ekonomia- eta gizarte-agente guztiak dinamizatzea, koordinatzea eta inplikatzeko lan nekeza dela, tokiko erakundeen lana ezinbestekoa da. Konpondu beharreko arazoetako asko ezingo dira soilik administrazioetik bideratutako politika eta jarduerekin konpondu, beraz, hiritarren eta enpresen inplikazioa behar izango da.

Tokiko Agenda 21 ak kudeaketarako garrantzi handiko tresna gisa agertzen ari dira, udalerriek garapen iraunkorra lortzeko bidean aurrera egiteko bideratu diren jardueretan, hiritarren parte-hartzea eta inplikazioa bermatzeko behar den lan-metodologia ezartzen baitute. Estrategiak argi eta garbi egiten du Tokiko Agenda 21 ak ezartzearen aldeko apustua, eta hitzez hitz honako hau aipatzen du:

[...] Tokiko Programa 21ek tokiko garapen iraunkorra modu eraginkorrean sustatzea ahalbidetu du. [...].



■ **Gautengo Deklarazioa** 2002. urtean Johannesburgon adostu zen Garapen Iraunkorraren goi-bileraren baitan, 22 eskualde-gobernuk hitzartuta. Bat dator tokiko eta eskualdeko garapen iraunkorraren alde adostutako politikak garatzearen garrantzia azpimarratzearekin, eta hitzez hitz honako hau aipatzen du:

[...] Gertutasunaren, eraginkortasunaren eta lurralde-esparruaren aldetik, uste dugu Eskualdeetako Gobernuak estrategikoki kokatuta daudela, gobernu-esparru guztiz beharrezko eta erabakigarri gisa, garapen iraunkorra erdietsi eta aplikatzeko politikak garatzeko orduan. Gobernuaren mailarengatik, hainbat egoeratan, garapenaren alderdi zehatzei aurre egiteko hobeto kokatuta gaude, eta, beste zenbaitetan, behar-beharrezko parte-hartzaileak gara, gobernuaren beste zenbait mailarekin eta gizartearekin elkartasunean, politikak modu bateratu eta koordinatuan ezartzeko. [...]

+x 2. Europako Herri eta Hiri Iraunkorren IV. Konferentzia: Aalborg + 10

Europako Herri eta Hiri Iraunkorren IV. Konferentzia Danimarkako Aalborg herrian egin zen, 2004ko ekainaren 9tik 11ra. Mila hautetsik baino gehiagok, teknikari adituek, GKEek eta gutxienez 45 herrialdeetatik joandako tokiko ordezkariak parte hartu zuten, eta hiru egunez eztabaidatu zuten garapen iraunkorraren kontzeptua toki mailako ekintza bilakatzeko moduz.



Konferentziaren helburua zen Europako Herri eta Hirien garapen iraunkorraren aldeko konpromisoak indartzea, eta Aalborgeko Konpromisoak –Konferentzian izan ziren alkateek sinatu zuten dokumentu politikoa– adostea eta hartzea lortu zen. Konferentzia esparru egokia izan zen parte-hartzaileek ordura arte izandako esperientziak eta gauzatutako ekimenak trukatzeko.

Parte-hartzea handia izateak argi eta garbi erakusten du Europako Herri eta Hiri Iraunkorren Mugimendua sare sendoa eta aktiboa dela, baita Europako tokiko agintarientzat garrantzizko elkargunea dela ere.



Konferentzia berri horrek egoitza Aalborgen izatea ez da ustekabeko kontua. Gogoratu behar da 1994an hiri horretan bertan egin zela Europako Herri eta Hiri Iraunkorren I. Konferentzia eta, amaieran, Aalborgeko Gutuna 86 hirik sinatu zutela. Azken hamar urte hauetan Aalborgeko Gutuneko postulatuak Europako 2.100 tokiko agintariek sinatu dituzte, eta, ondorioz, hainbat Tokiko Agenda 21 martxan jarri ahal izan dira. Aalborgeko Gutunari esker, Europako tokiko agintariek hainbat eta hainbat Tokiko Agenda 21 ezarri dituzte. ‘Aalborgeko Gutuna’ herriek eta hiriek garapen iraunkorraren alde egin behar duten ahaleginaren asmoen deklarazio bihurtu dute, batetik, Tokiko Agenda 21 horien bilakaerak berak eta, bestetik, udalerriek egindako lanetan zehaztasun eta apustu handiagoaren eskaerak.

IV. Konferentzia baino lehen, “Aalborgeko Gutunean” hartutako konpromisoa gainditu eta hitzetatik ekintzetara pasatu behar zelako ustea zabaldu zen tokiko agintarien artean.

2004ko ekainean, lan handiko egun askoren emaitza gisa, Aalborgeko Gutuna berrikustez eta berrestez gain, **Aalborgeko Konpromisoak** hartu ziren. 10 gai nagusitan taldekaturik daude konpromisoak eta Europako udalerriek iraunkortasuna lortzeko bidean zer erronkei aurre egin behar dieten zehazten da.






ICLEI Iraunkortasunaren aldeko Tokiko Gobernuetako Europako zuzendari *Gino van Bergin-en* hitzetan, konpromisoak dira hiriek iraunkortasuna lortzeko bidean neurri eta ekimen zehatzak erabaki ahal izateko lehen lan-esparrua.

Hamar konpromiso horiek hamar gai-arlotan eratu dira:

1. **Gobernu-erak**
2. **Iraunkortasunerako udal-kudeaketa**
3. **Guztion ondasun naturalak**
4. **Kontsumoa eta bizimodua arduratsua**
5. **Hirien plangintza eta diseinua**
6. **Mugikortasuna hobetu eta Zirkulazioa gutxitu**
7. **Osasunerako tokiko ekimena**
8. **Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra**
9. **Berdintasuna eta gizarte-justizia**
10. **Tokikotik globalera**

Dokumentuaren helburua da, Aalborgeko Gutunean finkatutako iraunkortasun-printzipioak ezarri ahal izateko, tokiko gobernuari helburu kualitatibo eta kuantitatiboak identifikatzen laguntzea.

Udalsarea 21, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareak, beste 110 hirirekin batera, konpromiso horiek sinatu zituen 2004ko ekainaren 11n egin zen atxikimendu-ekitaldian. Horrenbestez, *“hitzetatik ekintzetara”* pasatzeko UDALSAREA 21 en apustua berretsi zen, eta euskal udalerrri guztiak agiria atxiki dezaten animatu.



+x 3. Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020

Aalborgeko hamar konpromisoak oso lotuta daude 2002ko ekainaren 4an Gobernu Kontseiluan onartutako **2002-2020ko Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiaren** baitan ezarritako bost helbururekin.

Estrategiak jasotzen dituen lehen hiru helburuak, hau da, ura, airea eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatzea, baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua eta natura eta biodibertsitatea babestea, Aalborgeko hirugarren eta laugarren erabakietan ere jasota daude (guztien ondasun naturalak, eta kontsumoa eta bizimodu arduratsuak ataletan). Estrategiaren azken helburuak klima-aldaketaren eragina mugatzeko premia jasotzen du, eta Aalborgeko hitzarmenean ere jasota dago, han azpimarratzen baita tokiko gobernuak direla klima-aldaketaren eragina mugatzeko politikak garatu behar dituztenak, hala mundu mailako eragina ere gutxiagotzen laguntzeko.

Tokiko Agenda 21i dagokionez, Aalborgeko bigarren konpromisoak, iraunkortasunerako udal-kudeaketari buruzkoak, azpimarratzen du Tokiko Agenda 21 sendotu beharra dagoela –Estrategiaren testuko laugarren helburuan ere jasota dago, lurralde-oreka eta mugikortasuna–, eta 2006 urterako helburutzat hartzen da Eukal Autonomia Erkidegoko udalerrietatik gutxienez 5.000 biztanle dituztenak, bakarka zein eskualde mailan, beren Tokiko Agenda 21eko programa taxututa izan beharko dutela.



BI DOKUMENTUEN KONPARAKETA-KOADROA

| 2002-2020ko GARAPEN IRAUNKORRERAKO EUSKAL INGURUMEN-ESTRATEGIAREN HELBURUAK | AALBORGeko KONPROMISOAK-ETORKIZUNERAKO INSPIRAZIOA |
|---|--|
| 1. Ur, aire eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatu | <ul style="list-style-type: none"> • 3. Konpromisoa: Guztion ondasun naturalak • 4. Konpromisoa: Kontsumoa eta bizimodu arduratsuak • 7. konpromisoa: Osasunerako tokiko ekimena |
| 2. Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua | <ul style="list-style-type: none"> • 3. Konpromisoa: Guztion ondasun naturalak • 4. Konpromisoa: Kontsumoa eta bizimodu arduratsuak |
| 3. Natura eta biodibertsitatea babestu | <ul style="list-style-type: none"> • 3. Konpromisoa: Guztion ondasun naturalak |
| 4. Lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua | <ul style="list-style-type: none"> • 2. konpromisoa: Iraunkortasunerako udal-kudeaketa • 5. konpromisoa: Hirien plangintza eta diseinua • 6. konpromisoa: Mugikortasuna hobetu eta zirkulazioa gutxitu |
| 5. Klima-aldaketaren eragina mugatu | <ul style="list-style-type: none"> • 10. konpromisoa: Tokikotik globalera |

Aalborgeko gainerako konpromisoak ere 2002-2020ko Garapen Iraunkorrerako Ingurumen Estrategiaren testuarekin lotuta daude, Garapen Iraunkorra lortzeko bidean aurrera egiteko beharrezkoak diren baldintzei dagozkien ataletan.

Aalborgeko lehenengo konpromisoetako bat, gobernu-erak aipatzen dituena, garapen iraunkorra lortzeko bidean aurrera egiteko baldintza gisa jasota dago, honako hau azpimarratzen baitu:

«**Gizabanakoen, taldeen, enpresen, instituzioen eta hiri-erakundeen era askotako ekarpenen integrazio-prozesu kolektibo gisa ulertu behar da iraunkortasunaren kultura.**»... «**Taldeari dagozkion gaietan jendearen eta taldeen motibazioa eta parte-hartze aktiborako bideak sustatu eta ingurumenarekiko ardura partekatua zentzua bultzatzea.**» >>

Aalborgeko zortzigarren konpromisoa ere –ingurumenari kalterik eragin gabe enplegua sortzea bultzatuko duen tokiko ekonomia bizia sortzeko beharra aipatzen duena– Estrategiaren baldintzetako batean –merkatua bultzatu egin behar dela ingurumenaren alde egin dezan dioena– jasota dago:

«**Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Sustapenerako Erakunde Arteko Planak garapen iraunkorrean eta epe luzeko enplegu--sorkuntzan oinarrituta dagoen eskualde-lehiakortasunerako eredu bat proposatzen du, eta, horretarako, beste zenbaiten artean, inguru osasungarri bati bidea emateko eragilea izateaz gain, iraunkortasuna enpresaren lehiakortasun-faktore gisa txertatu beharko du**», «**Enpresentzako sari-sistema bat ezartzen lagundu, ingurumenarekiko duten jarreraren arabera**», «**Ingurumen-araudiaz haratago joatea bultzatuko duten diru-laguntzen bideak ezarri.**» >>

GIEIE 2002-2020 BEHARREZKO BALDINTZAK

Aalborgeko lehen konferentzia egin zenetik hamar urteren buruan aurrerapauso handia egin da, parte-hartzaile guztiek onartutako printzipio- eta premisa--saila jasota duen Aalborgeko Gutuna sinatetik Aalborgeko 10 konpromisoak onartzera –sinatzaileek bete beharreko helburuak zehazten dituen– pasatu baita.

Konpromisoen helburua da udalerriek eta hiriek adostutako hitzarmenak onartzea eta barneratzea, eta horiek haiei dagozkien Tokiko Agenda 21 etako programetan integratzea. Horrek esan nahi du udalerriek, Aalborgeko gutuna onartzeaz gain, Tokiko Agenda 21 en baitan taxututako udaleko ekintza-planetan 10 konpromisoak integratu behar dituztela.



Konpromisoen izaera loteslea azpimarratzeko, udalerriek eta tokiko erakundeek bete beharreko hainbat epe ezarri dira. Aalborgeko konpromisoak onartzetik 12 hilabeteren buruan erabaki guztiak modu egituratuan aztertuko dira; 24 hilabeteren buruan, sinatutako konpromiso guztiak integratuko dituzten helburu 'zehatzak' finkatzera konprometituko dira udalerriak, eta horiek bete eta gara daitezen jarraipena egingo dute, eta bai *Garapen Iraunkorrerako Herri eta Hirien Kanpainari* bai hiritarrei jakinaraziko zaie.

Munduko garapen iraunkorrari lagunduko dion Garapen Iraunkorrerako politika eraginkorra egin nahi bada tokian, bai gizabanakoaren bai taldearen ardura sustatu eta bultzatu behar dira, gutako bakoitzak egingo ditugun ekarpenek Garapen Iraunkorrean aurrera egiteko balio dezaten.

+X 4. Aalborgeko Konpromisoak nola hartu?

Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerriek Aalborgeko Gutuna eta Aalborgeko Konpromisoak onartu izana hiru etapa edo egoeraren arabera azter dezakegu, betiere, Udalek beren Tokiko Agenda 21eko prozesuen baitan hartutako konpromisoak eta egindako aurrerapausoak kontuan hartuta:

■ 1. SUPOSIZIOA: Tokiko Agenda 21 diseinatzeko hasi ari diren Udalerriak

Kontzientzia-iragan, Tokiko Agenda 21ak diseinatzeko hasierakoan eta halako udal-erronkak esan nahi duenarekin, normala da Udalak Aalborgeko gutuna osoko bilkuran onartzea. Halako pausoa, Europako beste hainbat udalerriren antzera, iraunkortasunaren alde lan egiteko asmoen deklarazioa da.

■ 2. SUPOSIZIOA: Diagnostika egin duten, parte hartzeko prozesua ireki duten eta beren Tokiko Ekintza Planak egiten ari diren Udalerriak

Tokiko Ekintza Plana egiterakoan, udalerriak planaren estrategia-ildoan baita *integratu behar ditu Aalborgeko 10 konpromisoak*.

Tokiko Agenda 21ek ezarritako metodologiari jarraituz, iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana Udalaren osoko bilkuran onartu beharko da eta, era berean, Aalborgeko 10 konpromisoak onartuko beharko dira.



Osoko bilkuran aurkeztuko den dokumentuan zehaztuko da udalaren 10 konpromisoen aldeko apustua tokiko ekintza-planaren baitan aurreikusitako helburuen eta ekimenen bidez.

■ 3. SUPOSIZIOA: Ekintza-plana onartu ondoren ekimenak gauzatzen ari diren udalerriak

Udalerriak Aalborgeko Konpromisoak onartu behar ditu, eta dagoeneko onartuta duen ekintza-planaren helburuekin eta jarduerekin lotu behar ditu haiek, baita ekintza-plana berrikusi ere, aipatutako printzipio horiek planean integratu ahal izateko.



The background is a solid blue color. In the upper left, there is a faint, light blue illustration of a cell with a nucleus and various organelles. In the upper right, there is a light blue starfish. The lower half of the image is dominated by two large, overlapping, abstract shapes in shades of blue, resembling stylized starfish or organic forms. The text 'aalborgplus10' is centered in the middle of the image.

aalborgplus10

5. Aalborg + 10 – Etorkizunerako Inspirazioa. Aalborgeko Konpromisoak (testu osoa)

■ Etorkizunerako Inspirazioa

GURE IKUSPEGI KOMUNA

Guk, Europako tokiko gobernuek, Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Kanpaina bat egin dugu, eta Aalborg+10 Konferentzian bildu gara ikuspegi komun bat berresteko, hain justu, gure komunitateek garapen iraunkorra oinarri duen etorkizuna izan dezatela.

Gure ikuspuntuaren arabera, hiri eta herri integratzaileak, aberatsak, sortzaileak eta iraunkorrak nahi ditugu. Hiri horiek bizi-kalitate ona eman behar diete herritar guztiei, eta baita hiriko bizitzaren alderdi guztietan parte hartzeko aukera ere. 1992an Rio de Jaineroko Goi-bileran lehen urratsak eman ondoren, 1994an, Iraunkortasunerako Europako Hirien Gutunean edo Aalborg-eko Gutunean jasotako iraunkortasun-printzipioak onartu genituen. Gerora, gure ikuspegia zabaldu egin dugu, hainbat aurrerapauso eman baititugu: 1996an, "Lisboako Ekintza Plana – Gutunetik ekintzara" dokumentua; 2000n, "Hannoverko Deia Europako buruzagiei eta udaletako agintariei XXI. mendera begira"; eta, azkenik, "Johannesburgeko Deia". Hortaz, "Aalborg+10 Konferentzia – Etorkizunerako inspirazioa" gertaera garrantzitsu bat da etenik gabeko prozesu horretan.

GURE ERRONKAK

Gobernua eta udal-kudeaketan ditugun eginkizunak gauzatzeko orduan, gero eta presio handiagoa egiten digute globalizazio ekonomikoak eta garapen teknologikoak. Izan ere, funtsezko aldaketa ekonomikoek aurre egin behar diegu, eta natura nahiz gizakia sorburu duten mehatxuek arriskuan jartzen dituzte gure komunitateak eta balibideak.

Beraz, erronka handiak ditugu aurrez aurre: enplegua sortzea ezagutzen oinarritutako ekonomia batean, pobrezia eta baztertze sozialaren aurka egitea, ingurumena modu eraginkorrean zaintzen dugula bermatzea, aztarna ekologikoa murriztea, demografia-aldaketei erantzutea, kultur aniztasuna bermatzea eta gerrak astindu dituen komunitateetan gatazkak saihestea eta bakea ziurtatzea.

GURE ERANTZUKIZUNAK

Gure eginkizuna funtsezkoa da garapen iraunkorra bermatzeko eta, aldi berean, gainerako gobernu-esparruekin elkarlanean arituz gure erronki erantzuteko. Horretarako, ikuspuntu indartsuago bat behar dugu, tokiko politiken diseinuan integratuta dagoena eta ingurumen-, gizarte-, kultur eta ekonomia-helburuak elkartzen dituena. Gainera, ziurtatu behar dugu gure herriko bizi-kalitatea hobetzeko egiten ditugun ahaleginek ez dezatela arriskuan jar munduko beste alde batzuetan bizi diren pertsonen eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea.

Egunerokoan Europako herritarrengandik hurbilen gauden gobernu-erakundeak gara, eta, beraz, aukera ezin hobea dugu hezkuntzaren eta kontzientziazioaren bidez banakakoak iraunkortasunaren alde jartzeko. Tokiko bideak ireki ditzakegu Europako politikak eta estrategiak ezartzeko, besteak beste, Lisboako Estrategia, Europako Batasuneko Garapen Iraunkorren Estrategia, Ingurumenaren Aldeko VI. Ekintza Programa eta EBko Hiriko Gaikako Ingurugiro Estrategia. Bestalde, aurrera egin dezakegu klima-aldaketari aurre egiteko, osasun-arloa hobetzeko nahiz gobernatzeko modu berriak sustatzeko Europako ekimenak bultzatuz eta NBERen Milurtekoko Garapen Helburuak eta Johannesburgeko Ezarpen Plana martxan jarri.

GURE ERANTZUNA: AALBORGEO KONPROMISOAK

Guk, Europako tokiko gobernuek, erronka horiek onartu eta eginkizunak gure gain hartzen ditugu. **Aalborg-eko Konpromisoak** onartzea aurrerapauso garrantzitsua da guretzat, eta ontzat ematen ditugu bai ekintza-programa eta bai ekintza-estrategiko eta koordinatua.

Ahalegin guztiak batzen ditugu tokiko garapen iraunkorren bidean aurrera egiteko, eta Aalborg-eko Gutunean jasotako iraunkortasun-irizpideak ditugu inspirazio-iturri. Gure nahia da hirien etorkizun iraunkorrei buruzko ikuspegi komuna iraunkortasunaren aldeko tokiko helburu eta ekintza zehatzetan islatzea. Aalborg-eko Konpromisoak gure gain hartu ditugu, irizpide horien bidez zenbait helbururi lehentasuna emateko gure egoeraren eta tokiko beharren arabera. Hortaz, tokiko herritarrek parte hartzeko prozesu bati ekingo diogu, eta, horri esker, helburuak zehaztu eta epeak ezarriko ditugu Aalborg-eko Konpromisoak erdiesteko bidean emandako aurrerapausoen segimendua egiteko.

GURE KIDEAK

Europako tokiko eta eskualdeko gobernu guztiei eskatzen diegu **Aalborg-eko Konpromisoak** sina ditzatela eta Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Kanpainako ordezkariak jakinaraz diezaietela erabaki zuzen hori.

Bestalde, tokiko eta eskualdeko agintari nazionalen elkarrekin, gobernu nazionalak, Europako Batzordeari eta EBko beste erakundeek galdatzen diegu aitortzea Aalborg-eko Konpromisoen dokumentuak berebiziko laguntza ematen diola iraunkortasunaren alde europarrek egindako ahaleginari, eta Aalborg-eko Konpromisoak betetzeko egin dugun lanaren alde egin dezatela.





Hortaz, Aalborg-eko Konpromisoak betetzeko guk egiten dugun lanaren alde egin dezatela, aurrerapausoak ematen eta horien segimendua egiten lagun diezagutela eta beren lan-arloetan izandako esperientzia erakuts diezagutela eskatzen diegu hauei guztiei: tokiko gobernuen sareak, Birziklatzearen Aldeko Hirien eta Eskualdeen Elkarteak, Climate Alliance - Klima-Bündnis – Alianza del Clima e.V, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseilua (CEMR), Energie-Cités, EUROCITIES, Garapen Iraunkorrerako Tokiko Gobernuen Elkarteak (ICLEI), Medcities, Baltikoko Hirien Batasuna eta Munduko Osasun Erakundea (WHO) – Hiri Osasuntsuak.

■ Aalborgeko Konpromisoak

1. GOBERNATZEKO MODUAK

Konpromisoa hartu dugu erabakiak hartzeko prozedurak demokrazia esku-hartzaileago baten bidez bultzatzeko.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Epe luzean, hiri edo herri iraunkorrari buruzko ikuspegi komuna osatzea.
2. Tokiko komunitateen eta udal-administrazioen parte-hartzea eta horiek modu iraunkorrean garatzeko duten gaitasuna areagotzea.
3. Tokiko sektore guztiei aktiboki parte hartzeko eskatzea.
4. Erabaki irekiak, arduratsuak eta gardenak hartzea.
5. Beste udalerriekin, herriekin, hiriekin eta gobernu-erakundeekin bat etorri eta modu eraginkorrean lankidetzan aritzea.

2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA

Konpromisoa hartu dugu udal-kudeaketako programa eraginkorrak prestatzeko, diseinutik hasi eta ebaluazio- eta ezartze-fasera arte.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Tokiko Agenda 21 eta iraunkortasunaren aldeko tokiko beste prozesuak sendotzea eta udal-kudeaketan errotzea.
2. Iraunkortasunaren aldeko kudeaketa integratua posible egitea, prebentzio-printzipioetan oinarrituta eta EBko Hiriko Gaikako Estrategiarekin bat etorri.
3. Aalborg-eko Konpromisoen esparruan helburuak finkatzea eta epeak zehaztea, eta konpromisoen segimendua egitea errazten duten kontrol-lanabesak eratzea.
4. Udaletako erabakiak hartzeko prozesuetan iraunkortasun-gaiak aintzat hartzen direla eta baliabideak ustiatzeko iraunkortasun-printzipio irmo eta zabalak kontuan hartzen direla ziurtatzea.
5. Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Kanpainarekin eta horren sareekin elkarlanean aritzea, iraunkortasun-helburuak erdiesteko egin dugun bidea gainbegira eta ebalua dezan.

3. NATUR ONDASUN KOMUNAK

Konpromisoa hartu dugu guztiok natur ondasun komunak erabiltzeko aukera berak izan ditzagun zaintzeko, babesteko eta bermatzeko.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Energia primarioaren kontsumoa murriztea eta energia garbien nahiz berriztagarrien kontsumoa handitzea.
2. Uraren kalitatea hobetzea, ura aurrezte eta modu eraginkorragoan baliatzea.
3. Biodibertsitatea indartzea eta areagotzea eta berdeguneak nahiz natur guneak zaintzea eta gehiago sortzea.
4. Lurzoruaren kalitatea hobetzea, ekoizpen ekologikoko lurra babestea eta nekazaritza nahiz basozaintza iraunkorrak sustatzea.
5. Airearen kalitatea hobetzea.

4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

Konpromisoa sendoa hartu dugu baliabideak tentuz eta modu eraginkorrean erabiltzea errazteko eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak bultzatzeko.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Hondakinak murriztea eta gehiago birziklatzea eta berrerabiltzea.
2. Hondakinak jardunbide egokien arabera kudeatzea eta tratatzea.
3. Energia premiarik gabe kontsumitzea saihestea eta energia-eraginkortasuna hobetzea kontsumitzen den lekuan.
4. Erosketa iraunkorrak egitea.
5. Kontsumo eta ekoizpen iraunkorra aktiboki sustatzea, batik bat, etiketa ekologikoa duten produktuak, gai organikoak eta bidezko merkataritza produktuak bultzatuta.

5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA

Konpromisoa hartu dugu hirigintza diseinatzen eta planifikatzen eginkizun estrategikoa izateko eta ingurumen-, gizarte-, ekonomia-, osasun- eta kultur gaiak guztion onerako bideratzeko.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Leku degradatuak eta bertan behera utzitakoak berreskuratzea eta berrerabiltzea.
2. Hiriak neurrigabe handitzea eragozte, hiri-dentsitate egokiak izatea eta hiriaren garapena ustiatu diren lekuetara bideratzea berdeguneetara bideratu beharrean.
3. Lurzoruaren erabilera mistoa bultzatzen duen hirigintza bermatzea, oreka lortzea lantokien, etxebizitzaren eta zerbitzuen artean eta bizilekuei lehentasuna ematea hirigunean.
4. Gure hiriko kultur ondarea behar bezala gordetzen, berritzen eta berrerabiltzen dela ziurtatzea.
5. Eraikuntza eta diseinu iraunkorrak egiteko eskakizunak ezartzea eta kalitate handiko arkitektura bultzatzea eraikuntzako teknologia berriak indartuz.

6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA

Onartzen dugu garraioa, osasuna eta ingurumena bata bestearen mende daudela, eta konpromisoa hartzen dugu mugikortasun iraunkorreko ereduak irmotasunez sustatzeko.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Motorizatutako garraio pribatuarekiko mendekotasuna txikitzea eta guztien eskura dauden alternatiba erakargarriak bultzatzea.
2. Garraio publikoan, oinez eta bizikletaz mugitzen den jende-kopurua areagotzea.
3. Ohiko ibilgailuaren ordez emisio poluitzaile gutxi igortzen dituztenak hartzea erraztea.
4. Hiriko mugikortasun iraunkorrerako plan integratuak garatzea.
5. Garraioak ingurumenean eta osasun publikoan duen inpaktua txikitzea.

7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA

Konpromisoa hartu dugu herritarren osasuna eta ongizatea zaintzeko eta areagotzeko.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Kontzientzia publikoa areagotzea eta ekintzak egitea osasunerako erabakigarriak diren alderdi askotan, osasun-sektorearekin zuzenean lotuta ez badaude ere.
2. Udalek osasun-planak gara ditzaten bultzatzea, hirietan ongizaterako aliantza estrategikoak sortzen eta mantentzen dituzten bideak izan ditzaten.
3. Osasun-arloko desberdintasunak murriztea eta pobrezia gaitzitea; horretarako, desberdintasun horiek urritzeko emandako aurrerapausoak aztertu behar dira aldizka.
4. Osasun-inpaktuak ebaluatzea sustatzea, sektore guztiak ahalegin daitezen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzen.
5. Hiri-plangintzako eragileak mobilizatzea osasun publikoan kontuan har dezaten hirien plangintza egiteko estrategietan eta ekimenetan

8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA

Konpromisoa hartu dugu tokiko ekonomia bizia izan dadin eta enplegua sor dezan ingurumenari kalte egin gabe.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Neurriak hartzea tokiko enplegua eta enpresak sortzea errazteko.
2. Tokiko enpresekin lankidetzan aritzea jardunbide korporatibo egokiak sustatzeko eta ezartzeko.
3. Enpresen kokalekua zehazteko, iraunkortasun-printzipioak garatzea eta ezartzea.
4. Merkatuei pizgarriak ematea kalitate handiko tokiko nahiz eskualdeko produktuak eros ditzaten.
5. Tokiko turismo iraunkorra sustatzea.

9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA

Konpromisoa hartu dugu komunitate integratzaileak eta solidarioak bermatzeko.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Pobrezia geldiarazteko eta arintzeko neurriak garatzea eta ezartzea.
2. Jende guztiari aukera berak ematea zerbitzu publikoak, hezkuntza, lana, trebakuntza, informazioa eta kultur jarduerak eskuratzeko.
3. Gizarteratzea eta gizon-emakumeen arteko berdintasuna sustatzea.
4. Herritarren segurtasuna hobetzea.
5. Kalitate oneko bizi-baldintzak eta sozialki integratuta dauden etxebizitza onak bermatzea.





10. TOKIAN TOKIKOTIK MUNDU GLOBALERA

Konpromisoa hartu dugu bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra, klima babestea eta antzeko helburuak direla-eta dugun erantzukizun globala gure gain hartzeko.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

1. Ikuspegi estrategiko eta integratu bat garatzea eta martxan jartzea klima-aldaketa arintzeko, eta berotegi-efektua eragiten duten gasen emisio-kantitatea iraunkorra izan dadin lan egitea.
2. Ingurumena babesteko politika gure politiken muinean sartzea energia-, garraio-, kontsumo-, hondakin-, nekazaritza- eta basozaintza-arloetan.
3. Klima-aldaketak izan ditzakeen kausei eta eraginei buruzko kontzientzia handitzea eta prebentzio-ekintzak sartzea klima-aldaketari buruzko gure politiketan.
4. Mundu osoko ingurumenean eragiten dugun inpaktua txikitzea eta ingurumen-justiziaren printzipioa indartzea.
5. Hirien eta herrien nazioarteko lankidetzak sustatzea eta mundu osoko arazoei tokian erantzunak ematea tokiko gobernuen, komunitateekin eta interesa duten alderdiekin elkartuta.

ORAIN ARTE ESANDAKO GUZTIA ONARTZEN ETA BERRESTEN DUGUNEZ, NIRE / GURE SINADURAREN BIDEZ, HAU ADIERAZTEN DUT / DUGU!

1. Bat gatoz Aalborg-eko Gutunarekin.
2. Bat gatoz Aalborg-eko Konpromisoekin.
3. Gure helburuak zehazteko prozesua abiarazteko, Aalborg-eko Konpromisoen printzipio orokorrak modu integratuan aztertuko ditugu, eskutitza sinatzen den egunetik kontatzen hasi eta hamabi hileko epean. Azterketa horrek testuinguru politiko bat izango du, egun ditugun konpromiso politikoei buruzkoa izango da eta egungo erronkak deskribatuko ditu.
4. Tokiko jendearen parte-hartzea bultzatuko duen prozesu bat sortuko dugu, printzipio orokorren azterketa hau kontuan hartuta, Tokiko Agenda 21eko edo tokiko iraunkortasunerako ekintzen beste programa bateko helburuak finkatzeko.
5. Gure eginkizunei lehentasuna emango diegu, gai hauei buruzko hamar konpromisoak betetzearren: compromisos sobre:

| | |
|--|--|
| 1. GOBERNATZEKO MODUAK | 6. MUGIKORTASUNA HOBETzea ETA ZIRKULAZIOA MURRITzea |
| 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA | 7. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA |
| 3. NATUR BALIABIDE KOMUNAK | 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA |
| 4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK | 9. BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA |
| 5. HIRIGINTZA DISEINATzea ETA PLANIFIKATzea | 10. TOKIAN TOKIKOTIK MUNDU GLOBALERA |

6. Tokiko helburuak zehaztuko ditugu dokumentua sinatzen den egunetik kontatzen hasi eta hogeita lau hilabeteko epean, inspirazio-iturri gisa Aalborg-eko Konpromisoen eranskina hartuz. Bestalde, helburu bakoitzarentzako aldi baterako esparruak finkatuko ditugu konpromisoak betetzeko bidean aurrerapausoak ematen ote ditugun erakusteko.
7. Aldian-aldean, gure lorpenen segimendua egingo dugu, eta herritarrei jakinaraziko dizkiegu emaitzak.
8. Herritarrei informazioa emango diegu Hiri eta Herrien Iraunkortasunerako Europako Kanpainari dagokionez ematen ditugun aurrerapausoei eta helburuei buruz. Gainera, espero dugu besteengandik asko ikasiko dugula Europako hirietako ordezkariekin lankidetzan arituta. Aurreikuspenen arabera, lehen azterketa 2010ean egingo da, eta bost urtean behin hurrengoak.

Izen osoa eta kargua letra larriz:

Tokiko/eskualdeko gobernua edo erakundea:

Sinatze-eguna eta -lekua:

Sinadura(k):

AALBORG + 10EKO KONPSOMISOAK SINATUTAKOAN, BIDALI KOPIA BAT ONDORENGO HELBIDEETARA:

CITY OF AALBORG
AALBORG COMMITMENTS SECRETARIAT
 STIGSBORG BRYGGGE 5
 P.O. BOX 219
 DK-9400 NØRRESUNDBY
 phone: +45 99 31 20 00
 fax: +45 99 31 21 60
 e-mail: aalborgplus10@aalborg.dk

IHOBE, SA
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
 Ibañez de Bilbao, 28, 8 solairua
 48009 BILBAO (BIZKAIA)
 Teléfono: 94 423 07 43
 Fax: 94 423 59 00
 E-mail: udalsarea21@ihobe.net
 http:// www.ihobe.net - http://www.ingurumena.net

Eranskina: Aalborgeko Gutuna – Europako Herri eta Hiri Iraunkorren Gutuna (testu osoa)

■ Europako Hirien Gutuna Garapen Iraunkorrenen Bila

« Aalborgen, Danimarka, 1994ko maitzak 27an Europako Hiri eta herri iraunkorren laugarren konferentzian adostua izan zen bezala »

1. ZATIA. ADOSTASUN AITORMENA: EUROPAKO HIRIAK GARAPEN IRAUNKORRENEN BILA

1.1 Europako hirien eginkizuna

Guk, Europako hiriok, Gutun honen izenpetzaileok, adierazten dugu historian zehar inperio, estatu eta erregimenak ezagutu ditugula, horiek guztiak gainditu ditugula bizitza soziala gunetzat hartuta, eta gure ekonomiaren eragile eta kultura, ondare eta tradizioaren zainzaile izan garela. Familia eta auzoekin batera, hiriak izan dira gure gizarte eta estatuaren oinarri, eta industrien, eskulangintzen, merkataritzaren, hezkuntzaren eta gobernuaren gune.

Badakigu gaur egungo hiriko bizimoduak –bereziki, eginkizun- eta lan-banaketaren egiturak, lurraren okupazioak, garraioak, industria-ekoizpenak, nekazaritzak, kontsumo- eta aisialdi-ekintzak, alegia, gure bizi-mailak– gizadiak dituen ingurumeneko arazoak arduradun egiten gaituela.

Europako biztanleen % 80 hirian bizi dela kontuan hartuz gero, oso esanguratsua da hori guztia.

Ikasi dugu mundu osoko biztanleriak ezin duela lortu gaur egun herri industrializatuetan dagoen baliabideen kontsumo-maila, eta, are gutxiago ondorengo belaunaldiak, kapital naturala suntsitu gabe.

Ziur gaude gizakion bizitza planeta honetan ezin dela iraunkorra izan tokiko elkarte bideragarririk gabe. Tokiko gobernuak arazoak dauden lekutik gertu dago, baita biztanleengandik ere; gizakiaren eta naturaren ongizatearen ardura partekatzen du beste gobernuarekin, maila guztietan. Horren ondorioz, hiriek zeregin erabakigarria dute bizimoduaren aldaketa-prozesuan, kontsumoan, produkzioan eta espazioaren banaketaren ereduetan.

1.2 Garapen iraunkorren nozioak eta hastapenak

Guk, hiriok, ulertzen dugu garapen iraunkorren kontzeptuak laguntzen digula gure bizimoduak naturak duen transmisio-gaitasunean oinarritzen. Ahalgintzen gara justizia soziala eta ekonomia eta ingurumen iraunkorra lortzen. Justizia sozialak nahitaez behar ditu ekonomia iraunkorra eta zuzentasuna, eta horiek, aldi berean, ingurumena era iraunkorrean erabiltzea.

Ingurumena era iraunkorrean erabiltzeak esan nahi du kapital naturala babestu behar dela. Horrek eskatzen du gure baliabide natural, hidriko eta energia berriztagarrien kontsumoak ez gainditzea berrizteko sistema naturalen gaitasuna, eta berriztagarriak ez diren baliabideak kontsumitzean ditugun abiadurak ez dezala gainditu baliabide berriztagarri iraunkorren ordezkatzeko-eritmoa.

Ingurumena modu iraunkorrean erabiltzeak, aldi berean, esan nahi du poluitzaileen igorpen-eritmoak ez dezala gainditu aireak, urak eta lurra xurgatu eta prozesatzeko duten gaitasuna.

Horrez gain, eskatzen du aniztasun biologikoari, osasun publikoari, airearen kalitateari, urari eta lurrari eustea, betiko babesteko bizia, ongizatea, flora eta fauna.

1.3 Tokiko estrategiak garapen iraunkorrenen bila

Guk, hiriok, argi daukagu hiria dela, hasiera batean, mundu modernoari erasaten dioten hainbat desorekari –arkitektonikoak, sozialak, ekonomikoak, politikoak, ingurumenekoak, eta baliabide naturalenak– ekiteko entitatek handiena; eta, aldi berean, unitaterik txikiena da arazoak era integratzaile, holistiko eta iraunkorrean behar bezala konpontzeko.

Hiri guztiak desberdinak direnez, nor bere bideak aurkitu behar ditu garapen iraunkorretzat. Horren hastapenak politika guztietan sartuko ditugu, eta gure indarra izango da tokiko mailari egokitutako estrategien oinarri.

1.4 Garapen iraunkorra oreka bilatzeko tokiko prozesu sortzaile moduan

Guk, hiriok, onartzen dugu garapen iraunkorra ez dela ez ametsa ez egoera aldaezina, maila horretan erabakiak hartzeko prozesua baizik; alderdi guztietara zabaltzen den orekaren aldeko tokiko prozesu sortzailea, alegia. Oreka bidean doan hiriko ekosistema bultzatzen duten nahiz bertatik urruntzen duten ekintzei buruzko etengabeko informazioaren itzulera ahalbidetzen du. Hiriko kudeaketa antzeko prozesu batean jasotako informazioan oinarritzean, hiriak osotasun organikoa dirudi, eta ekimen garrantzitsu guztien ondorioak nabarmentzen dira.

Horrelako prozesu baten bidez, hiriak eta tokiko biztanleek jakinaren gainean egin dezakete aukera; era berean, garapen iraunkorrean oinarritutako kudeaketa-sistema batek ahalbidetzen du eragina jasoko duten pertsonen –eta ondorengo belaunaldien– interesa ordezkatzeko erabakiak hartzea.

1.5 Negoziazio irekien bidez arazoei konponbidea ematea

Guk, hiriok, aitortzen dugu gure arazoak ezin dizkiegula erkidego handiagoei ez ondorengo belaunaldiei pasatu. Beraz, arazoak eta desorekak guk geuk konpondu behar ditugu, eta, hala behar izanez gero, nazioko eta eskualdeko erakundeekin laguntzarekin. Horixe da hitzarmenaren hastapena, eta hastapen horren erabilerak askatasun handiagoa emango dio bere jarduerari ekiteko.





1.6 Hiriko ekonomia garapen iraunkorrerantz

Guk, hiriok, gure garapen ekonomikoaren faktore murriztailea gure kapital naturala izatera pasatu dela ulertzen dugu, haizea, lurra, ura eta basoak barne. Beraz, kapital naturala horretan inbertitu behar dugu, lehentasun-zerrenda hau kontuan hartuta:

- Gaur egun dagoen kapital naturala mantentzeko inbertitu (lur azpiko ur-erreserbak, lurra, espezie arraroen bizilekua).
- Kapital naturalaren hazkundera sustatu egungo ustiapenak murriztu. (Adibidez, berriztagarriak ez diren energienak).
- Kapital naturalek erreserbetan duten presioa arindu berriak sortuz; hala nola baso naturalean erabilitako presioa arintzeko aisialdirako parkeak jarri hirietan.
- Produktuen azken etekina areagotu; adibidez, energia-etekin handia duten eraikinena edo ingurumena errespetatzen duten hiriko garraioena.

1.7 Justizia soziala, hirietan garapen iraunkorra lortzeko

Gu, hiriok, kontziente gara ingurumen-arazoen ondorioz kaltetuenak behartsuenak direla (zarata, trafikoak sortzen duen poluzioa, aisialdirako instalaziorik eza, osasunerako kaltegarriak diren etxebizitzak, berdegunerik eza...); era berean, arazo horiei aurre egiteko bitarteko gutxien dituztenak dira. Iraunkorra ez den jokabide horren iturria ondasunen banaketa da; hala, aldaketa nekezagoa egiten da. Herritarren oinarrizko gizarte-premiak asetzeko asmoa dugu, hala nola osasun-, enplegu- eta etxebizitza-programak eskainiz eta ingurumena babestuz. Lehen esperientziekin bizimolde iraunkorrak ikasi nahi ditugu; horrela, hiritarren bizi-kalitatea hobetzen lagun dezakegu, soilik kontsumoa maximizatu ordez.

Komunitateak aurrera modu iraunkorrean egin dezan lagunduko duten lanpostuak sortzen saiatuko gara, eta, horrela, langabetuen kopurua jaitsiko da. Enplegua erakarri edo sortzerakoan, garapen iraunkorra kontuan izanda balioetsiko ditugu aukera ekonomikoak, lanpostu berriak eta garapen iraunkorrak dituen oinarrien arabera produktu iraunkorrak sortzen laguntze aldera.

1.8 Lurraren okupatze iraunkorra

Guk, hiriok, aitortzen dugu garrantzi handia duela gure herriko agintariak lurraldea antolatzeko politika eraginkorrak erabiltzeko; plangintza guztietan ingurumenaren ebaluazio estrategikoa izango duten politikak, hain zuzen. Hirietako kontzentrazio handiek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatu behar ditugu garraio publiko eraginkorrez eta energiaren hornitzea; eta, aldi berean, giza dimentsioaren garapenari eutsi.

Hirietako erdialdean berrikuntza-programekin hasierakoan eta hiri-inguruetan toki berriak planifikatzerakoan, ahalegintzen gara zenbait funtzio elkartzeko, mugikortasuna murriztu nahian. Eskualdeen arteko bidezko menpekotasunaren kontzeptuak mendiaren eta hiriaren artean dagoen fluxua orekatzeko lagundu behar dugu, eta hiriek kanpoaldeko eremuetan baliabideen ustiaketa baino ez egitea galarazi.

1.9 Hiriko mugikortasun iraunkorra

Guk, hiriok, ahalegindu behar dugu hirietara heltzeko bideak errazten, eta hiritarren ongizateari eta bizimoldeari eutsi ahal garraio-bideak murrizten. Badakigu hiri bideragarri batentzat ezinbestekoa dela behartutako mugikortasuna murriztea eta ibilgailu motordunen erabilera –beharrezkoa ez denean– sustatzeari uztea.

Ingurumena errespetatzen duten garraio-bideei lehentasuna emango diegu (oinetz edo txirringaz egiten direnei edo garraio publikoari, bereziki), eta gure plangintza-ahaleginetan abiapuntuan jarriko dugu bitarteko horien konbinazioa. Hirietako zenbait garraio motordunek beste betekizun lagungarri bat ere izan behar dute, alegia, hiriko zerbitzu-erara iristea erraztu eta hirietako ekonomia-jarduerari eutsi.

1.10 Munduko klima-aldaketaren ardura

Guk, hiriok, onartzen dugu planetaren berotasuna oso arriskutsua izan daitekeela inguru naturalerako, hirietarako eta datozen belaunaldietarako. Arrisku horiek erantzun egokia behar dute negutegi efektuaren gas-igorpenak aurrera egin ez dezan, eta, ondoren, ahalik eta azkarren murrizteko. Era berean, garrantzi handia du biomasaren munduko baliabideak babesteak –besteak beste, basoak eta fitoplanktonak–, planetaren karbono-zikloan garrantzi handia baitute.

Erregai fosilen igorpenen jaitsierak ekimen-politika bat behar du, hiri energia-sistema gisa eta alternatibak luze eta zabal aztertu ondoren. Energia-iturri berriztagarriak dira irtenbide iraunkor bakarrak.

1.11 Ekosistemen intoxikazioaren prebentzioa

Gu, hiriok, uretan, lurra eta elikagaietan dauden substantzia toxikoak eta arriskutsuak ugaltzen ari direla jabetu gara, eta gauza horiek guztiak jendearen osasunerako eta ekosistemarako gero eta mehatxu handiagoak direla. Dauzkagun bitarteko guztiekin, poluzioa geldiarazten eta sorreran aurre egiten ahaleginduko gara.

1.12 Tokiko autogestioa, beharrezko baldintza gisa

Gu, hiriok, ziur gaude bizimodu iraunkorrak garatzeko beharrezkoak diren indarra, ezagutza eta sormen potentziala dauzkagula; baita gure taldeak sortzeko eta kudeatzeko garapen iraunkorren ikusmoldean ere. Neurri batean, gure herrietako ordezkariak, modu demokratikoan hautatuak izan direnak, prest egongo lirakeke gure hiriak berrantolatzeko ardura beren gain hartzeko, betiere garapen iraunkorri begira. Apustu horri aurre egiteko hiriak duten gaitasuna ordezkatzeko-printzipioaren arabera ematen zaien autogestioaren eskubideen menpe legoke.

Ezinbestekoa da tokiko agintariak behar adina ahalmen eta finantza-laguntza tinkoa izatea.

1.13 Hiritarren protagonismoa eta herriaren parte-hartzea

Guk, hiriok, "Programa 21" delakoaren agindupean hitz ematen dugu, Rio de Janeiroko goi-bileran onartutako funtsezko dokumentuak agindu bezala, gure herrietako alderdi guztiekin lan egingo dugula -herritarrak, lantegiak, talde interesatuak-, Programa horri laguntzeko tokian tokiko plangintza egiterakoan.

Aintzakotzat hartzen dugu Europako Batasunak ingurumen-alorreko bosgarren ekintza-programan –'Garapen Iraunkorrerantz' programa- egin duen deia, eta herriko sektore guztietara eramateko ardura hartuko dugu gure ere.

Beraz, parte hartzen duten talde guztien lankidetzan oinarrituta izango dira gure lanak. Hiritar eta talde interesatu guztiek eskura izango dute informazioa, eta lekuan lekuko prozesuetan erabakiak hartzeko aukera ere bai. Garapen iraunkorraren gaian, nola edo hala, hezkuntza eta prestakuntza lortu nahi ditugu; jende xumearentzat ezezik, ordezkari hautetsi guztientzat eta bertako administrazioetako langileentzat ere bai.

1.14 Hirien kudeaketa-tresnak, garapen iraunkorrerantz zuzenduak

Guk, hiriok, hitz ematen dugu hirien kudeaketako planteamendu ekosistematikoa lortzeko tresna politikoak eta teknikoak erabiliko ditugula. Tresna mota asko erabiliko ditugu, bai ingurumen-datuak biltzeko eta aztertzeko, bai ingurumen-plangintzak egiteko; era berean, arauzko tresnak, ekonomia- eta komunikazio-tresnak –besteak beste, arauak, zergak eta eskubideak–, eta sentsibilizazio-tresnak erabiliko ditugu, herritarren parte-hartzea barme. Ingurumenaren kontabilitate-sistema berriak sortzen ahaleginduko gara, gure baliabide naturalen kudeaketa baimentzeko, eta gure bitarteko artifiziala den “dirua” bezain eraginkorrak izan daitezzen.

Badakigu gure erabakiak eta gure kontrolak –bereziki, ingurumenaren zaintza, kontu-ikuskapenak, ingurumen-eraginaren ebaluazioa, kontabilitatea, balantzeak eta txostenak– oinarritu behar ditugula hainbat adierazletan –hiriko ingurumen-kalitatea, hiriko fluxuak eta ereduak eta, batik bat, hiriko sistemak iraunkorrak diren ala ez adierazten dutenak–.

Guk, hiriok, aitortzen dugu Europako hiri askotan arrakastaz ezarri direla hainbat politika eta ingurumen-jarduera positibo. Jarduera horiek iraunkorra ez den garapena oztotatzeko eta moteltzeko baliabideak dira, bakarrik ezin baitiote bueltarik eman gizartearen joera horri.

Hala ere, oinarri ekologiko tinko horrekin, hiriak egoera ezin hobean daude lehen pausoa emateko eta politika horiek beren administrazio-sistemaren jardueran martxan jartzeko, tokiko hiri-ekonomiak kudeatzeko garapen iraunkorraren alderdi guztiak biltzen dituen prozesu baten bitartez. Prozesu horretan, gure estrategiak eta eskarmentuak sortu, neurtu eta kontuan hartzea behartuak gaude.

2 ZATIA. GARAPEN IRAUNKORRERAKO EUROPAKO HIRIEN KANPAINA

Guk, Europako hiriok, Gutun honen izenpetzaileok, tokiko arrakasta eta eskarmentuetatik abiatuta, garapen iraunkorraren prozesuaren alde elkarrekin lan egingo dugu. Tokian tokiko epe luzeko ekintza-planak (Tokiko 21 programaren plangintzak) egiteko elkarri adorea emango diogu; horrela, agintarien arteko elkarlana indartu eta prozesu hau ingurumen-gaietako Europako Batasuneko ekimenetan integratuko dugu.

Garapen iraunkorreko Europako hirien kanpaina indarrean jarriko dugu, hirien garapen iraunkorraren aldeko lanetan laguntzeko eta adorea emateko. Kanpaina honen lehen zatia bi urteko iraupena izango du, eta ebaluazioko helburu izango da 1996an egingo den garapen iraunkorreko hiriei buruzko Europako bigarren hitzaldian.

Tokiko agintari guztiak –hirietakoak, herri txikitakoak edo probintzietakoak eta Europako tokiko agintari guztiak– Gutun hau sinatzera eta bere gain hartzera gonbidatzen ditugu, kanpaina honen bidez.

Europako agintari-sare handi guztiei kanpaina koordinatzeko eskatzen diegu. Sare horien ordezkariekin osatutako koordinazio-batzordea sortuko da. Inongo sareetan parte hartzen ez duten tokiko agintariei kontuak eskatuko zaizkie.

Kanpaina honen helbururik garrantzitsuenak honako hauek izango dira:

- Europako hirien arteko laguntza erraztea, garapen iraunkorrerantz zuzendutako politikak sortzeko eta ezartzeko.
- Tokiko mailan eskarmentu zuzenei buruzko informazioa jasotzea eta zabaltzea.
- Tokiko beste agintari guztiak garapen iraunkorraren bila abiaraztea.
- Gutunaren sinatzaile berriak lortzea.
- “Garapen iraunkorreko hiriaren saria” antolatzea urtero.
- Europako Batzordeari gomendio politikoak egitea.
- Hiriko ingurumenari buruzko aditu-taldeari garapen iraunkorreko hirien txostenak egiten laguntzea.
- Erabakiak hartzen dituzten tokiko arduradunei Europako Batasuneko bidezko gomendioak eta legegintza ezartzen laguntzea.
- Kanpainaren informazio-aldizkaria kaleratzea.

Jarduera horiek kanpainaren koordinazioa eskatuko dute. Beste erakunde batzuk ere gonbidatuko ditugu kanpaina honetan gogotsu parte hartzera.

3. ZATIA. PROGRAMA 21 EN TOKIKO EKIMENETAN PARTE HARTZEA

Garapen iraunkorraren aldeko tokiko plangintza-prozesuak

Guk, Europako hiriok, Gutun honen izenpetzaileok, garapen iraunkorreko Europako hirien kanpainarekin bat eginez eta sinatuz, hitz ematen dugu 2000. urtearen amaierarako gure komunitateetan adostasuna lortzen ahaleginduko garela, Tokiko 21 Programari dagokionez. Hala, Programa 21 en 28. atalak ezarritako agindua betetzen dugu, 1992ko ekainean Rioko Biltzarrean erabaki zen bezala.

Gure tokiko ekintza-planaren bitartez, Europako Batasuneko ingurumeneko bosgarren ekintza-programa –“Garapen iraunkorrerantz”– burutzen lagunduko dugu. Programa 21 en tokiko laguntza-ekimenak Gutun honetako lehen zatian oinarrituz burutuko dira.

Tokiko ekintza-plan bat prestatzeko prozesuak ondorengo urratsak bete behar dituela proposatzen dugu:

- Egun dauden plangintza- eta finantza-ereduak onartzea, baita beste plan eta programa batzuk ere.
- Galdeketa publiko zabal baten bitartez, arazoak eta horien arazoak sistematikoki identifikatzea.
- Lehentasuneko zereginak finkatzea, identifikatutako arazoei aurre egiteko.
- Garapen iraunkorra duen komunitate-eredu bat sortzea, sektore guztiak parte hartuko duten prozesu parte-hartzaile baten bitartez.





- Aukera estrategiko altematiboak kontuan hartu eta balioestea.
- Epe luzeko tokiko ekintza-plan bat finkatzea, garapen iraunkorrari begira, helburu neurgarriak barne
- Plana nola gauzatu den programatzea, eta egutegi bat eta kideen arteko erantzunkizun-banaketaren adierazpen bat prestatzea
- Plana nola gauzatu den jarraitzeko eta haren berri emateko sistemak eta prozedurak finkatzea

Berrikusi egin beharko dugu gure tokiko agintarien barne-hitzarmenak egokiak eta erangikorak ote diren Tokiko 21 Programaren ekimenak behar bezala garatzeko, garapen iraunkorrari begira egingo diren epe luzeko tokiko ekintza-planak barne.

Beste ahalegin batzuk ere beharko dira antolatzeko gaitasuna hobetzeko, hau da, berriz aztertu beharko dira hitzarmen politikoak, prozedura administratiboak, lan korporatiboa eta diziplina artekoa, eskura dauden giza baliabideak eta agintarien arteko lankidetzak, elkarteak eta sareak.

Aalborgen (Danimarka) sinatuta, 1994ko maiatzak 27an

AALBORGEKO GUTUNA IZENPETUTAKOAN, BIDALI KOPIA BAT ONDORENGO HELBIDEETARA:

CITY OF AALBORG
AALBORG COMMITMENTS SECRETARIAT
STIGSBORG BRYGGE 5
P.O. BOX 219
DK-9400 NÖRRESUNDBY
phone: +45 99 31 20 00
fax: +45 99 31 21 60
e-mail: aalborgplus10@aalborg.dk

IHOBE, SA
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ibañez de Bilbao, 28, 8 solairua
48009 BILBAO (BIZKAIA)
Teléfono: 94 423 07 43
Fax: 94 423 59 00
E-mail: udalsarea21@ihobe.net
http:// www.ihobe.net - http://www.ingurumena.net

EDOZEIN ZALANTZA EDO ARGIBIDETARAKO, UDALSAREA 21EN (JASANGARRITASUNERAKO UDALERRIEN EUSKAL SAREA) IDAZKARITZA TEKNIKOA DEN IHOBE INGURUMEN JARDUKETARAKO SOZIE TATE PUBLIKOAREKIN HARREMANETAN JARRI 94 423 07 43 TELEFONOAN EDO udalsarea21@ihobe.net HELBIDE ELEKTRONIKOAN



Fourth European
Conference
on Sustainable
Cities & Towns